

amaitu dadinean. Epailaritzako gastuen emankortasuna hobea izan dadin proposatzeko egingo da hori.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.* – Dekretu hau indarrean jarri dadin egunetik hasita, Eusko Jaurlitzako Zuzentza Sailaren bidez egingo dira ofizio-paper eskabide guztiak.

*Bigarrena.* – Dekretu honetan finkatzen diren baldintzei atxikitako ofizio-paper berriaren horniketa, 1994ko uztailaren 15etik hasita egingo da. Hala ere, gaurregun egon dagoen ofizio-papera erabiliko da oraingo gerakinak amaitu arte.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* – Zuzentza sailburuari esku ematen zaio, ofizio-paperaren formatoa eta izakera aldatu ahal izateko, Euskal Autonomi Elkartean Zuzentza Administrazioaren normalkuntzak ekar ditzan beharrak kontutan hartuta eta bai dekretu honetan xedatzen dena betetzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan ere.

*Bigarrena.* – Dekretu honetan agintzen dena ez zaie aplikatuko Euskal Autonomi Elkartean egoitza duten Erregistro Zibilei, Estatuko Administrazioak hornitzen baititu organu horiek normalizatutako materialez.

*Hirugarrena.* – Ofizio-papera epailaritzan erabiltzeak sor ditzan arazoei eta dekretu honetan aurrikusten ez diren gainontzeko zirkunstantziei, Estatuko arauak aplikatuko zaizkie.

*Laugarrena.* – Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko maiatzak 17.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Zuzentza sailburua,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

anterior, a fin proponer mejoras que faciliten la eficacia y eficiencia del correspondiente gasto judicial.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.* – A partir de la entrada en vigor del presente Decreto todas las peticiones de papel de oficio se realizarán a través del Departamento de Justicia del Gobierno Vasco.

*Segunda.* – El suministro del nuevo papel de oficio ajustado a las características señaladas en el presente Decreto será efectivo a partir del 15 de julio de 1994. No obstante se seguirá utilizando el actual papel de oficio hasta que se terminen los remanentes que del mismo existan.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* – Se faculta al Consejero de Justicia para modificar en el futuro el formato y características del papel de oficio en función de las necesidades de normalización de la Administración de Justicia en el País Vasco, así como para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.* – El contenido del presente Decreto no será de aplicación a los Registros Civiles radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo material normalizado se suministra a través de la Administración del Estado.

*Tercera.* – Para todas las cuestiones relacionadas con el uso judicial del papel de oficio y demás circunstancias no previstas en el presente Decreto será de aplicación la normativa estatal.

*Cuarta.* – El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 1994.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

#### 2019

DECRETO 188/1994, de 24 de mayo, por el que se modifica la estructura orgánica del Departamento de Justicia.

Por Decreto 75/1992, de 31 de marzo, se procedió a establecer la vigente estructura orgánica del Departamento de Justicia, introduciendo algunas modificaciones organizativas en aras de una mayor eficacia en el desempeño de los cometidos y funciones que le atribuyen el artículo 11 del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos. Pendiente el traspaso de funciones en materia penitenciaria, la Dirección de Servicios

Martxoaren 31ko 75/1992 Dekretuz, gaurregun Zuzentza Sailak duen egitura organikoa finkatu zen eta eraketa mailako aldaketa batzuk sartu ziren, era honeitan, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko Sailak sortu, kendu eta aldatzen eta horiek dituzten egitekoak eta egiteko-eremuak finkatzen dituen urriaren 2ko 525/1991 Dekretuko 11. atalean aipatu den sailari ematen zaizkion egitekoak betetzeak, emankortasun oparoagoa izan dezan. Presondegi arloko egitekoak traspasatu ez direnez, Presondegietako Zerbitzu Zuzendaritza hornikuntzarik gabe egon da, traspasoa noiz

egingo zenaren zain. Horiek horrela, Giza Eskubideen Zuzendaritzari eman zaio arlo honetako hainbat programei laguntzeko eta horiek eratzeko zerbitzua.

Egitura hau indarrean sartu zenetik hona bi urte igaro direnez, Eusko Legebiltzarrak 1993ko ekainaren 10ean egin zuen osoko bilkuran onartutako arrazionalizazio eta hobekuntza printzipioak aplikatuz eta Euskal Autonomi Elkartearen 1994. urteko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen direneko abenduaren 22ko 9/1993 Legean eskatu eta gastu publikoa murrizte-politikari jarraituz, bidezkoa da, administrazio-organuak sortze-eraketa gaurregun egiatan ematen diren egitekoen beharrei egokitzea. Eta hori, presondegi arloko egitekoak traspasatzea gerta dadinean, eskualdaketa horrek eskatu ditzan antolaketa-neurriak har daitezaren kaltetan gabe.

Ondorioz, Zuzentza sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Konseiluak 1994ko maiatzaren 24an egindako bileran aztertu eta onartuta, hauxe,

#### XEDATU DUT:

*Atal bakarra.- 75/1992 Dekretua aldatzea:*

Zuzentza Sailaren egitura organikoa finkatzen duen martxoaren 31ko 75/1992 Dekretuko honako atal hauek, honela idatzita gelditzen dira:

Presondegietako Zerbitzu Zuzendaritza izenaz 2. ataleko 3.2. puntuaren zehazten den organua, kendu egiten da.

11. ataleko 2. eta 3. puntuak honako era honetan idatzita gelditzen dira:

«2.- Zuzentza Sailordetzari atxikita gelditzen da Giza Eskubideen Zuzendaritza.

3.- Era berean, Zuzentza Sailordetzari atxikita gelditzen da horri laguntzeko Administrazio Unitatea, Giza Eskubideen Zuzendaritzari izendatuta ez dauden arloei dagokienetan.»

13. atala, edukin barik uzten da.

#### LEHENENGO AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eta erabakiak hartzeko esku ematen zaio Zuzentza sailburuari.

#### BIGARREN AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko maiatzak 24.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Zuzentza sailburua,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

Penitenciarios se mantenía sin dotación a la espera de la verificación del mismo, atribuyéndose, mientras tanto, a la Dirección de Derechos Humanos los servicios de apoyo y desarrollo de determinados programas de esta área.

Transcurridos dos años desde la entrada en vigor de la actual estructura, y en aplicación de los principios de racionalización y mejora de la Administración Autónoma, aprobados por el Parlamento Vasco en sesión Plenaria correspondiente al día 10 de junio de 1993, así como de la política de contención de gasto público postulada por la Ley 9/1993, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1994, se hace aconsejable ajustar el diseño de creación de órganos administrativos a las necesidades funcionales reales del presente, sin perjuicio de que, al momento de producirse el correspondiente traspaso de funciones en materia penitenciaria, se adopten las medidas organizativas que éste exija.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 24 de mayo de 1994,

#### DISPONGO:

*Artículo único.- Modificación del Decreto 75/1992.*

Los artículos que se relacionan a continuación del Decreto 75/1992, de 31 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Justicia, quedan modificados en los términos siguientes:

El órgano reseñado en el punto 3.2 del artículo 2, con la denominación de Dirección de Servicios Penitenciarios, queda suprimido.

Los puntos 2 y 3 del artículo 11 quedan redactados de la siguiente manera:

«2.- De la Viceconsejería de Justicia dependerá la Dirección de Derechos Humanos.

3.- Asimismo, dependerá directamente de la Viceconsejería de Justicia la Unidad Administrativa de Apoyo a la misma en las materias no atribuidas a la Dirección de Derechos Humanos.»

El artículo 13 queda sin contenido.

#### DISPOSICION FINAL PRIMERA

Se faculta al Consejero de Justicia para dictar las disposiciones y resoluciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

#### DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de mayo de 1994.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.